



galtzaundi

e u s k a r a t a l d e a

2020ko EGITASMOA



Nafarroa etorbidea 6
20400 Tolosa
Telf: 943 655 004



www.galtzaundi.eus



galtzaundi@galtzaundi.eus



688 738 418



@galtzaundi



galtzaundi



@galtzaundi.eus

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4. or.
Eskualdetzea eta euskaltzaleen antolaketa.....	5. or.
Lan-talde profesionala eta borondatezkoak.....	6. or.
Batzordeak eta sektore mahaiak.....	7. or.
Gizarte aktibazioa.....	8. or.
Jakintza eta disgnostikoak.....	9. or.
Sustapena.....	10. or.
Komunikazioa.....	11. or.
Zehakotasuna.....	12. or.
Partaidetzak.....	12. or.
Tolosaldeko Euskararen Mahaia.....	13. or.
Finantzaketa.....	14. or.

SARRERA

Galtzaundi Euskara Taldea, Tolosaldeko euskalgintza sozialaren ehuna eraiki, antolatu eta eraginkortasunez jarduteko xedez eraturako Elkartea da, helburu nagusi batekin, euskararen normalizazioa bultzatzea eta euskal kulturaren garapenean eragitea. Asmo horrekin aritu da lanean bere ia 30 urteko ibilbide luzean, euskalgintzako beste hainbat eragileekin batera.

2016-2017an Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako Euskaltzaleen Foroak egin zuen go-goeta estrategikoan, hiru eragin esparru edo lan-ildo nagusi bereizi ziren: 1. Galtzaundi Euskara Taldearen jarduna eskualde osora zabaltzea, euskaltzaleak antolatzea, eta mugimendua gaztetzea eta feminizatzea; 2. Gizarte aktibazioa eta sektoreen inplikazioa lortzea eta sinergiak sortzea; eta 3. Gobernantza eta lidertza eredu berri bat sustatzea eta euskalgintza instituzionala eta sozialak osatutako Tolosaldeko Euskararen Mahaia (TEM) eratzeko prozesua bultzatzea, helburu nagusi hauekin: elkarren aitortza oinarri duen zoru komuna eraikitzea, eskualde ikuspegiko hizkuntza politika eta ekintza plana adostea, eta osagarritasunean oinarritutako lankidetzak molde berriak frogatzea. Guztiaren jomuga, Tolosaldean harreman hizkuntza nagusia euskara izatea, ezagutza bermatzea eta erabilera eragitea.

Iparra hori dugularik, urteko plan anbiziotsua jarri genion gure buruari, anbiziotsua eta egingarria. COVID 19 osasun krisiak eta horren eragindako alarma egoerak, ordea, plan hori berrikustera behartu gaitu, baina ez gara bidetik aterako eta eutsiko diegu ildo nagusi guztiei. Urte zaila izango da aurtengoa, baina argi dugu norabidea eta pausu sendoak eginez jarraituko dugu.

Zaila izango da aurtengo urtea, bai! Hala ere, ekimenari txukun xamar eusteko itzaropena dugu, euskalgintzan arduraz diharduten erakundeekin dugun lankidetzak giroari esker. Tolosa eta Ibarako Udalekin ditugun hitzarmenak aipatu behar ditugu bereziki, baina baita beste udal batzuekin (Anoeta, Irura, Zizurkil, Amezketa, Alegia) irekiak ditugun lankidetzak ildo desberdinak ere, eskualdeko Udal guztietara zabaltzea nahiko genituzkeenak, eta, noski, beste erakundeetatik (GFA eta EJ-HPS) jasotzen ditugun laguntzak.

Kontziente gara, are zailagoak izango direla datozen urteak. Horregatik, hainbat erakundeen hizkuntza praktikan atzerakadak ikusi ditugun garaiotan, premia izango da Galtzaundi indartsu bat, inguruan euskararen aldeko dinamika eta sare sozial zabala josiko duena. Euskararen indarberritze-prozesua bultzatzeko teknikarien lana beharrezkoa izango da, baina horrekin batera ezinbestekoak izango ditugu aktibazio soziala eta boluntarioen sare zabala. Euskaraldia badator eta hor izango dugu hori lortzeko aukera paregabea aurten.

Tolosako kaleetan, 2019ko abenduan, azken 100 urtetan lehen aldiz, euskara gaztelania baino gehiago entzun da. Albiste hori izan dugu urte hasieran. Pozteko datua, ez harrotzekoa, are gutxiago bertan goxo gelditzekoa. Badugu zer ospatua, beraz, baina, batez ere, baduzu zer egina!

ESKUALDETZEA ETA EUSKALTZALEEN ANTOLAKETA

Galtzaundiren **eskualdetze eta antolatze lanari jarraipena** emango zaio. Galtzaundi kide sarea zabaltzen eta bere egitura indartzen eta egonkortzen jarraitzea dira xedek. Helburu zehatz hauek jarri dira:

- Galtzaundiren oinarri soziala hedatu eskualdeko 28 herrietara eta datu basea eguneratua eduki. Ahalegin berezia egingo da belaunaldi berriak erakartzeko proiektura.
- Galtzaundiren organigrama eta funtzionamendua egonkortu: Zuzendaritza, azpi-taldeak, azpi-eskualde batzordeak, herri batzordeak... Ahalegin berezia egingo da emakumeen eta gazteen parte-hartzea erraztuko duten baldintzak sortzeko.
- Galtzaundiren erabaki guneen (azpi-talde, azpi-eskualde, herri batzorde) erabakimena errespetatu, helburu adostuen baitan.

Helburu hauen artean, garrantzia berezia emango zaie Galtzaundiren proiektura herritarrak erakartzeko diskurtsoei eta gazteen eta emakumeen parte-hartze zuzena errazteko baldintzak sortzeari.



LAN-TALDE PROFESIONALA ETA BORONDATEZKOA KOHESIONATU, INDARTU ETA OREKATU

Erabaki gune desberdinen jardun baldintzak zainduko dira, koordinazio ona bermatu eta borondatezko kideen ekarpena errazteko (lan erritmoa eta karga neurtua) eta lan giro ona ziurtatzeko (dinamika baikorrak). Lan-talde profesionalak eta kide boluntarioek osatzen duten eredu orekatua, eraginkorra eta sostengarria garatzea da helburua. Ildo hauek zainduko dira bereziki:

- Borondatezko kideen (erabakiguneetakoak eta sortzen diren berariazko lan-taldeetakoak) esku-hartze aktiboa errazteko baldintzak.
- Lan talde profesionala, proiektuaren izaera, neurria eta baliabideekin bat datorrena.
- Funtzionamendu dinamika. Aldi oro gainbegiratuko da behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko.
- Lankideen (profesionalak eta borondatezkoak) prestakuntza.



KOORDINAZIO BATZORDEAK ETA SEKTORE MAHAIK

Garrantzia berezia ematen dio Galtzaundi Euskara Taldeak eskualdeko euskalgintzako eragileen arteko elkarguneak indartzeari, sareteari eta lankidetzaz sustatzeari batetik eta, bestetik, gainerako gizarte sektoreekiko sinergiak lantzeko guneak sustatzeari. Jarraipena emango zaio, beraz, azken urteotan abiatutako bideari eta esku-hartze aktiboa izango dugu ondoko bilgune hauetan:

- Tolosaldeko Euskara Teknikarien batzordea: Anoeta, Amasa-Villabona, Ibarra, Irura, Tolosa eta Zizurkilgo udaletako euskara teknikariak eta UEMA-ko Tolosaldeko teknikariarekin osatzen dugun bilgune honetan aktiboki parte hartuko dugu, proposamenak eginez eta ardurak hartuz.
- Herrietako euskara batzordeak: Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako udalek eratutako euskara batzordeetan parte hartze zuzena izango dugu; kontaktuan izango gara gainerako herrietan eratzten direnekin eta sortzea sustatuko dugu ez dagoen haietan.
- Hezkuntzako Euskara Mahaia: eskualdeko ikastetxe gehienak ordezkatuak dauden bilgunea dinamizatuko dugu, gure proposamenak mahairatuko ditugu eta egiten zaizkigun eskaerei erantzuteko ahalegina egingo da.
- Helduen euskalduntze-alfabetatze mahaia: eskualdean diharduten euskaltegiak (AEK eta Tolosako Aitzol udal euskaltegia) eta euskara teknikarien ordezkariarekin batera osatzen dugun bilgunea dinamizatuko dugu. Erabilera izango da arreta gune nagusia.
- Hirugarren sektorea: eskualdeko merkatarien elkarteekin (Tolosa&Co, Oria eta Ibarrrakoa) koordinatzeko elkargunea dinamizatuko dugu sektorean gauzatzeko ekimenak adostu eta bideratzeko. Jomuga komunak adostea eta elkarlanean sakontzea da xedea.
- Lan Munduko mahaia: Lanbide Eskolak eta Lanekirekin osatutako bilgunea egonkortua dago; enpresen eta langileriaren inplikazioa lortzea eta euskara lan hizkuntza bilakatzea da xedea.
- Aisia eta kirol mahaia: eskualdeko eragileekin bilgune hau osatu eta egonkortzeko oinarriak jarri nahi dira.



GIZARTE AKTIBAZIOA

Euskarak 365 Egun markoan, Tolosaldeko harreman sare ezberdinetan euskararen aldeko jarraera sustatetik hara, ezagutzan sakondu eta erabilera areagotzeko eta indartzeko ekimenak bideratzea da ekintza lerro honen helburu nagusia. Proiektu zehatzak bultzatuko dira gizarteko eremu desberdinetan eragin dezaketen agente guztien lankidetzari eta parte-hartze aktiboa lortzeko ahalegina eginez.

- 2. Euskaraldia: hizkuntza ohituretan eragitea eta euskararen erabilera sustatzea helburu izanik, 2020 azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da ariketa soziala. Norbanakoaren konpromisoa (*Belarriprest* edo *Ahobizi*) eta kolektiboen konpromisoa (*Arigunea*), eskatuko du. Eskualdeko herri guztiek parte har dezaten eta ahalik eta entitate gehien inplika daitezten saiatuko gara tokian tokiko herritarren eta Udalekin batera.
- Ikasle Eusleak: ikasleen artean hizkuntza kontzientzia indartzea eta erabilera ohituretan eragitea helburua duen proiektu hau garatuko da, DBH mailan, eskualdeko bost ikastetxetan.
- Merkataritza proiektua: hizkuntzaren erabilera eta ikusgarritasuna indartzeko gune estrategikoa da 3. sektoreak eskaintzen diguna. Sektore horretako jendea euskararen normalkuntzan engaiatzeko erremintak eskainiko dira eta beharrezko laguntza emango da Tolosa (UEMArekin elkarlanean), Amasa-Villabona eta Ibarra, merkataritza elkarrekin koordinatuta.
- Mintzalaguna: euskara ikasten ari direnek euskara praktikatzeko lagun arteko espazio atseginak dira. Tolosakoak eta Ibarraakoak antolatu eta kudeatuko ditugu eta eskualdeko beste herrietakoekin koordinatuko gara ekimen bateratuak antolatzeko.
- Praktika telematikoak: *Etxealdian euskaraz* eta *MintzalagunONSarea* eskaintza egingo da; euskara praktikatu nahi dutenak eta erraztasuna dutenak elkartzen ditu online. Proiektu hau, COVID19 alarma egoeraren eraginpean sortu da *Mintzalagunei* eta behar hori dutenei (ikasleei etab.) aukera bat eskaintzearren.
- Hezi eta lan: eskualdeko Lanbide Eskoletan euskaraz hezitako ikasleek beren lan ibilbidea euskaraz hasteko baldintzak sortzeko laguntza ematen jarraituko dugu.
- Anoeta eta Irurako enpresetan euskararen ikusgarritasunak eta erabilerak tokia irabazteko lanean jarraituko dugu, bi udal horiekin dugun lankidetzari jarraipena emanez.



JAKINTZA ETA DIAGNOSTIKOAK

Galtzaundi Euskara Taldeko erabakiguneetako kideen eta langileen formazioan sakontzea (teorikoa, taktikoa eta ebaluatzeko sistemak), herritarren ezagutza soziolinguistikoa aberasteko jardunak antolatzea, eta eskualdeko esku-hartzeak definitzeko beharrezkoak diren diagnostikoak egitea dira lan ildo honetako xede nagusiak.

- Galtzaundikiden trebakuntza: soziolinguistikari buruzko mintegia antolatuko dira erabakiguneetan ari direnentzat, eta tailerrak eskainiko zaizkie bazkideei.
- Herritarren trebakuntza: hitzaldi eskaintza egingo da; hiru antolatuko dira gutxienik. Galtzaundi Forum-a errekuperatzeko proiektua diseinatuko da.
- ‘Tolosaldeko euskalgintzaren historia soziala’ proiektua landuko da.
- Kale-erabilera neurketak. Lan hauek egingo dira: Tolosako 2019ko datuak prozesatu, ondorioak atera eta zabaldu; Tolosako 2020ko entzuketa eta datu-bilketa egin; eta Ibarako entzuketa egin, prozesatu eta ondorioak atera.
- Tolosako merkealdietako hizkuntza paisaiaren behaketa. Bi urtez behin egiten da. Neguko eta udako merkealdiak behatuko dira eta bilakaera aztertuko da aurrekoekin parekatu eta ondorioak atera ondoren.
- “Nolako hizkuntza paisaia utzi du “Itxialdiak”? Kaleetako paisaia eta sare sozialetako eskaintzak behatuko dira. Proiektu hau, COVID19 alarma egoeraren eraginpean sortu da.
- Amasa-Villabona, Ibarra eta Tolosako hirugarren sektoreko erabilera behaketa: hiru herri horietako saltokiak bisitatuko dira eskaintza eginez eta, aldi berean, bilakaera neurtzeko datuak bilduz.
- Beste ikerketak: Jakintza batzordeak erabaki ditzakeen ikerketa lanak egoerak hala eskatuta.



SUSTAPENA

Hutsuneak dauden haietan, euskararekiko harreman esparruak eraikitzea, eta sormena eragiteko edota euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzeko jarduerak antolatzea da lan lerro honen helburua, bakarrik edo beste eragileekin lankidetzan.


- Sormenetik: Tolosako azokaren markoan, euskal kulturgintzaz hausnartzeko eta kultur esparru ezberdinetako sortzaileak, herritarrak eta euskaltzaleak batzeko gunea da. Bi saio antolatu nahi dira.
- Irakurle Taldea: Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta irakurtzeko ohitura dutenei euskarazko literaturaz hitz egiteko espazioa eskaintzen zaie Tolosan. Hamar saio antolatuko dira, idazlea bertan dela horietako lautan.
- XIII. Ibarra Galtzakomik: sorkuntza eta euskara uztartuz, gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, gazteek grafismoa euskaraz lantzea eta komikigintza afizio edo ofizio dutenei euren lanak kaleratzeko eta ikusgarri egiteko plaza eskaintzea du xede. Ahalegin berezia egingo da ekimena gizarteratzen eta bere emaitzak ezagutarazten.
- Tokiko hedabideen kontsumoa sustatuko da. Tolosako Mintzalagun programako partaideei urtebeteko harpidetza oparituko zaie.
- Eskualdeko kultur eragileak erdigunean jarri eta herrien arteko harremanak trinkotzeko ekimena diseinatu nahi da.
- Kultura eta aisialdia: eskualdeko kultur eskaintza zabaltzeko, herrien arteko trukeak errazteko, eta herrietan antolatu nahi diren aisialdirako eskaintza partekatzeak erak aztertuko dira.
- Euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko lankidetzak: euskararen normalizazioa helburu diren ekimenak gauzatu dira, antolakuntzan parte zuzena izanez edo bitartekaritza zerbitzuak eskainiz: "Gau beltza" eskualdean bultzatu; euskararen jai handietara autobusak antolatu; Errigora produktuen banaketa, etab.



KOMUNIKAZIOA

Komunikazioaren gizartean bizi gara eta nahitaezkoa zaigu komunikazio plangintza egoki planifikatua garatzea, barne eta kanpo komunikazio estrategiak ondo definitzea eta horiek gauzatzea:

- Komunikabideekin informazioa elkartrukatzea eta lankidetzatza: Tolosaldeko komunikabideekin (kasu batzuetan nazio mailakoekin ere bai) informazio trukatzea eta euskararen gaia horietan txertatu dadin erraztea da helburua. Bereziki landuko da Tolosaldeko Ataria eta eskualdeko beste bi tokiko hedabideekiko elkarlana.
- Eguneroko komunikazioa eta Euskaraldia: Galtzaundiren ohiko jardunak eskatzen dituen komunikazio materialak sortu eta kudeatuko dira. Dedikazio berezia eskainiko zaio Euskaraldiari: eskualde osorako komunikazio plana diseinatu eta koordinatuko da behar diren materialak sortuz eta herrietako antolatzaileen eskura jarritz; Aiurri, 28 Kanala eta Tolosaldeko Ataria hedabideekin elkarlan ildo ere zabalduko dugu.
- www.galtzaundi.eus eta sare sozialak: webgunea etengabe eguneratuko da eta berrikuntza berriak txertatuko dira elkarrekin dituen beharretara egokitzeko. Aldi berean, gehien erabiliak diren sare sozialetan Galtzaundiren lanketak eta euskararen inguruko berriak eta hausnarketak plazaratuko dira.
- Barne komunikazioa: bereziki zainduko da Galtzaundi kideekiko harremana, baina baita Tolosaldeko euskaltzale eta erakundeekikoa ere, maiztasunez, elkarrearen egitasmoen eta erabakien berri emanez horretarako sortutako barne-orri digitalaren bitartez.
- 2019. urteko jarduna biltzen duen bideoa eta aldizkari digitala argitaratuko dira eta baita 2020 egitasmoa biltzen duen aldizkari digitala ere.



ZEHARKAKOTASUNA: berdintasuna eta aniztasuna

Euskararen aldeko jardunean, gizon emakumeen berdintasuna, aniztasuna, integrazioa eta bizikidetzaren lanketan diharduten eragileekin harreman zubiak eraikitzen jarraituko dugu, batik bat, Tolosaldeko Asanblada Feministarekin eta Tolosaldeko aniztasuna eta integrazioa alorrean dihardutenekin.

PARTAIDETZAK

Euskaraz informatzeko eskubidea bermatzea eta euskara bidezko euskara kontsumoa sustatzeko Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M (TKT) -ko sortzailea eta bertako Administrazio Kontseiluko kidea da Galtzaundi Euskara Taldea. Era berean, euskara indarberritzeko xedez sortutako elkartearen Euskaltzaleen Topagunearen bultzatzailea eta kidea ere bada. Partaidetza aktiboa izango dugu bi horietan, eta esleitu eta onartu ditugun karguak eta ardurak beteko ditugu:

- Tolosaldeko Komunikazio Taldeko E.M.-ko administrazio kontseiluko lehendakaritza.
- Euskaltzaleen Topagunea-ko zuzendaritza kidetza.



TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

Lan ildo honetan urrats esanguratsuak eman dira aurreko bi urtetan. Mahai gainean dauzkagu eragile desberdinen artean ondutako *TEM izaera, egituraketa eta funtzionamedua* proiektua eta *TEM 2020-2022 Ekintza Plana*. Horiek egikaritzeko urratsak eman daitezten ahaleginduko gara. Inoiz baino beharrezkoagoa dela uste dugu, eragile sozial eta instituzionalen bilgunea eratzea, eta Tolosaldeko hizkuntza politika aurreratzeko lidertza berria egituratzea: helburu komunen, baliabideen optimizazioaren eta eraginkortasunaren aroa bizi dugu. Denon beharra dago, batu egin behar dugu osagarriak izanez, eraginkorragok eta indartsuagoak izateko. Beraz:

- Prozesua hauspotzen jarraituko dugu.
- Sortzen diren bilgunetan aktiboki parte hartuko dugu.
- Galtzaundiri beste eragileek aitortzen dizkieten funtzioak beteko ditugu baliabideak bermatzen bazaizkigu.



FINANTZAKETA

Eguneroko beharrei erantzuteko eta proiektu berriei heldu ahal izateko, saiakera berezia egingo da eskualdeko Udalekiko harreman eredu egonkor bat eraikitzeko Tolosa eta Ibarrekin abiatua dugun bidea zabalduz. Horiek eta erakunde nagusien diru-laguntza deialdiak izan dira Galtzaundiren diru-iturriak orain arte. Aurrerantzean baina, garrantzi handia hartuko du autofinantzaketarako diru iturriak arakatzek. Horiek eta, orain artean bezala, finantza kudeaketa arduratsua izango dira urteko helburuak.



2020KO EGITASMOA

